



ATAZKA KOLEKTIBOA ATAZKA GUNEA

Kaixo:

Esku artean duzuen Gatazka kolektibo autonomo eta asanblearioaren aurkezpena duzue, beren ageriko funtzionamendu asanblearioagatik nabarmendu diren kolektibo eta taldeetatik, hala nola irati libreak, kolektibo antimilitaristak, Gaztetxeak, banatzaile ez komertzialak eta beste, datorren jendeak osatua; eta baita bere topagunea den Gatazka Gunearen aurkezpena ere.

Gatazka helburu du ezker antagonista, eta bereziki ezker antiautoritarioaren kolektibo ezberdinen arteko komunikazio eta dinamismoa bideratzeko espazio baliagarria bilakatzea.

Gure helburuen artean ikusten dugu lan hauek kalean presentzia izatea, batzarretan planteaturiko gaien dimentsio praktikoa eman nahian eta hori bultzatzen gertuko errealitateen urtean jarrera politikoa hartuz.

Era beran, hedabide kontrainformatiboak gure hedabidetzat hartzen ditugu eta elkarren arteko erlazioak indartzea bilatuko dugu.

Ez dugu inola ere euskararekiko gure erantzukizuna ahazten, bizi garen herriaren hizkuntza zanpatu zein gutxietsia eta agure kulturaren oinarri ezinbestekoa. Euskara potentziatzeko mekanismoak bultzatuko ditugu.

Gure lanaren hein bat kolektiboek laguntza emateko asmo argiarekin garatutako oden arren, hauekiko gure erlazioa elkartasunezko erabateko elkarrekotasunean oinarritutako oda. Ez dugun ahi Gatazka Gunea zerbitzu gune edo denda alternatibo soiltzat kontsideratua izatea.

Kontrakulturaren bultzadaren alde egiten dugu, kontrakultura kultura instituzionalaren, komertzialaren, aurrez aurretik ulertuz. Gure kultura (eta gure politika) ez da ez markek ezta erakundeek babestua izan behar. Gauza guztien ordena zalantzan jartzen dugu, kultura berarene ere, ekintza edo utzikeriagatik merkaturatu eta hutsaldua.

Hala ere ez dugu handinahiko izan nahi, Felix Likiniano Kultur Elkartearen ondare politikoaren zati bat eta okupatzen duen espazio fisikoa jasotzen ditugula onartzen dugu, zeinen alde aurretiko bere hamabost urteetako biziraupeneko lanagatik izan ez balitz ezinezkoa litzatekeen abiatzea hasi garen abiapuntutik.

Era berean argi utzi nahi dugu Likinianoren desagerpenak eta Gatazka eta Gatazka Gunearen sorrerak ez dutela eragin Likiniano Topagunearen barruan zeuden bi kolektiboen, Ekintza Zuzena eta DDT Banaketak, desagerpen ezta fagozitazioa, ezta aurretik egiten ziren ekintza ezberdinek (literatur tailerrak, hitzaldi-solasaldiak, liburu aurkezpenak) jarraituko ez duten, modu batean al abestean aurrera egingo baitute.

Besterik gabe, zuen ekarpenaren, zuen kolaborazioaren zain eta zuekiko modu berean jokatzeko gure konpromisoarekin agurtzen gara. Espero dugu hemendik gutxira elkar topatzea gaizki egileen bidean "ongile" moduko hitzekin ahoa betetzen zaien aurka. Osasuna eta askatasuna!



Gatazka Gunea, Ronda 12, 48005 Bilbo, Tel/Fax: 94 479 01 20
Email: gatazka@ddt-liko.org, Web: www.ddtliko.org